

ASTEAZKENA

2019/07/10
7. urtea, 1.089. zenbakia
107.6 fm
www.ataria.eus
URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

**Josu Artola
bosgarren,
Grodexola
Xtreme
lasterketan**

Moto gidari amezketarra
gustura dago proban
egindako lanarekin // **6**

Tolosaldea IKTko
28 igerilarik
90 domina
lortu dituzte
Gipuzkoakoan // **6**

«Datorren denboraldian jokalariek eta teknikoek gora begiratu beharko lukete»

ALEX NOGUES ESKUBALOI ENTRENATZAILEA

Azken bost urteak Tolosa Eskubaloia taldean eman ditu Alex Nogues donostiarrak; lorpen ugari izan dituzte eta horregatik dio taldeak etorkizun ona duela aurretik; Bera Bera taldeko bigarren entrenatzaile izango da aurrerantzean // **7**



JOSU ARTUTXA DORRONSORO

TOLOSA 2020KO SANJOANETARAKO

Fronton kudeatzeko ardura hartu dute Sonia Tapia sukaldariak eta Orbela tabernako Egoitz Goikoetxeak; San Joan jaietarako ireki nahi dute eta eraikinaren garai bateko «esentzia» berreskuratu nahi dutela diote // **2**

Karmen eguna bitarteko jaiak izango dituzte alegiarrek

Asteartea bitarte egitarau ofizialeko eta Bibalabirjeneko ekitaldiak izango dituzte aukeran; aurten ere sexu erasoak ekiditeko kanpaina abiarazi dute udalak eta eragileek // **4-5**

Belauntzako Gure Txokoa eremua berrantolatuko dute

Beotibar auzoko lurzorua kontsolidatzeko pausoak ematen hasi da udala; antolamendutik kanpo jotzen diren lurzatiak txukunduko dituzte, ibaiaren bidea hobetzeko // **3**



Egun, itxura berria du Fronton eraikineko kanpokaldeak. Barrutik itxuraldatuta ikusteko, baina, itxaron egin behar da. J.A.

Behin-betiko esleitu dute Fronton eraikineko ostalaritza-zerbitzua

30 urteko hitzarmena sinatu dute Orbela Taberna SL-k eta Sonia Tapiak; 2020ko ekainean irekitzea aurreikusten dute.

Josu Artutxa Dorronsoro

Duela bi hilabete egin zen, Beotibar frontoiko ostalaritza-eraikineko jatetxe eta kafetegi zerbitzuen lehiaketa publikorako ustiapen deialdira aurkeztutako proposamenen gutun-azal irekiera. Hiru erakundek aurkeztu zuten kudeaketarako hautagaitza, baina bik soilik lortu zuten azken fasera igarotzea: Orbela Taberna SL-k eta Sonia Tapiak osatutako ABEEa (Aldi Baterako Enpresa Elkartea), eta Azkonarra SL. Espedientea eta klausula administratibo partikularren eta baldintza teknikoaren plegua onartu ondoren, aurkeztutako irizpideak baloratu eta dokumentazioa kalifikatu zen.

Aurkeztutako proposamenak

aintzat hartuta, eraikuntzaren aurreproiektua, kontzesioaren ekonomia eta finantza plana, eta proiektuaren kalitatea baloratu ziren. Horiez gain, marka, komunikazio eta marketin proposamenak, hizkuntza-jakintza egiaztatze tituluak eta kanona ere baloratu ziren. Orbela Taberna SL-k eta Sonia Tapiak lortu zuten puntuazio altuena.

Gerora, errekurtsioa aurkezteko aukera izan zen. Hala ere, ekainaren 17an bildu zen kontratazio mahaia, udaletxean, eta aho batez onartu zuten txostenak eta dokumentuak epe eta modu egokian igortzea; lizitazio egingiza ere balioztatu zuen. Aste honetan argitaratu dute behin-betiko esleipena Tolosako Udalean eta Gipuzkoako Buletin Ofiziale-

an, eta jada sinatu dute hitzarmena Orbela tabernako Egoitz Goikoetxeak eta Sonia Tapiak.

30 urteetarako kontratua da, eta urtero, 33.600 euroko kanoa ordaindu behar diote udalari. Eraberritze lanak aurreikusi moduan joanez gero, kafetegi eta jatetxe zerbitzu eraberrituak, 2020ko San Joan festen atarian irekitzea espero dute. Iazko maiatzean erabaki zuen udalak eraikina eraberritu eta ustiaketa berrirako lehiaketa publikoa abiaraztea. Ordutik, urtebete igaro da, eta datorren urtera arte itxaron beharko da ostalaritza zerbitzu berriaz gozatzeko.

IRAGARKI LABURRAK

Lan eskaintza

Zaintzailea. Haur hezkuntzan titulua duen neska euskalduna, zuen haurrak zaintzeko prest. Interesatuak, deitu: 687 929 237.

Ospakizuna

Mendeurrena. SAM enpresak 100 urte bete ditu aurtan. Urtean zehar, ekintza ezberdinak egingo dira, eta irailaren 28an, fabrikako instalazioetan, bazkaria izango da langile eta langile ohi guztientzat. Telefonoz, 666 427 699 (WhatsApp) edo cenariosam@gmail.com helbide elektronikora idatziz eman daiteke izena, uztailearen 31 baino lehen.

«Behean nahiz goian eskaintza gastronomiko berdina izango da»



J. Artutxa Dorronsoro

12 urte aritu zen lanean Fronton jatetxean, Roberto Ruiz sukaldariarekin. Orain, proiektu handi batean sartu eta behin praktikak egiten hasi zen lekura itzuliko da Sonia Tapiak (Irura, 1978). «Oraindik, sentimendu erromantiko bat dut eraikin honekin», dio. Bazkide berri batekin ekingo dio, ordea, erronka garrantzitsuari: Orbela tabernako Egoitz Goikoetxea tolosarrarekin. «Berak egin zidan proposamen ero hau», aitortzen du txantxetan.

Zein izan zen zuen erreakzioa esleituak izan ondoren?

Azaldu ezinezko sentimenduekin nago oraindik. Oso pozik gaude biok, emozioz beterik. Urtebete aritu gara gogor lanean, sektoreko profesionalekin batera, eta albiste hau guzti horren emaitza izan da, oso positiboa.

Egun, zein egoeratan aurkitzen da zuen proiektua?

Esleipenaren ostean, administrazio kontuen dokumentuak aurkeztu behar izan genituen, eta ondoren, legalki esleitu zigiten proiektua. Orain, eraberritze lanetarako proiektua aurkeztu behar dugu, obrei ekin aurretik, beharrezko agiri guztiak jaso behar ditugulako.

Nola irudikatzen dituzue kafetegi eta jatetxe berriak?

Jose Luis Belloso dekoratzaileak bideratuko du obra. Guk ideia bat genuen buruan, eta berak, proposamen hori eraikinaren ezaugarrietara egokitu behar izan du. Ordu askotako lana izan da, baina merezi izan du. Askok espero ez duten itxura emango diogu, lehengoarekin zerikusirik izango ez duena, ederragoa. Izan ere, sartzen den oro leku berri batean sentitzea nahi dugu.

Noiz hasiko dira obrak?

Irailean hasia aurreikusten da. Orain lizentziak iristea itxaroten ari gara. Uda, beraz, lasaiago egoteko aprobeixatuko dugu, nahiz eta hasteko gogo izugarriarekin gauden. Guregatik balitz, bihar bertan hasiko ginake eraberritze lanekin.

Eta noiz irekiko duzue?

2020ko sanjoan baino lehen irekitzea da gure nahia. Hala ere, obrek markatuko dituzte epeak.

30 urteko kontratua. Epe luzeazari gara hizketan...

Bai, baina oraindik ez naiz horri begira jarri. Lanean hasteko gogoz gaude, eta beraz, baita hainbeste urtez bertan irauteko ere.

Nola banatuko dituzue kafetegiko eta jatetxe lanak?

Bi espazioak uneoro elkarlotuta egongo dira, bereizketarik gabe, eskailera batzuen bitartez. Horrela, bezeroek behean nahiz goian egon ahalko dute, nahi duten bakoitzean. Egoitz eta biok elkarrekin ariko gara lanean, bi zerbitzuetan, bikote indartsua osatzen dugulako, eta negozioa bera, gainera, biona delako. Eskaintza gastronomikoari dagokionez, berdina izango da goian nahiz behean. Kontuan izan behar da, goian, agian, jarduera ezberdinak egin ahal izango direla. Zeintzuk dira zuen proiektuaren ezaugarri nagusienak?

Adin guztietako herritarrentzako proiektua izango da, eta tolosar oro izango da proiektuaren parte. Herrian egiten diren ekitaldi gastronomiko eta kulturalen ere izango gara. Gainera, kontzertuak edota liburu aurkezpenak egingo ditugu. Izan ere, Fronton eraikinak lehen zuen esentzia edo izaera gastronomikoa nahiz kulturala berreskuratu nahi dugu.





Gure Txokoako eremuaren zati bat, etxe bizitzen ataritik aterata. I. SAIZAR

Gure Txokoaren plan bereziari hasierako onespina eman diote

Belauntzako Beotibar auzoko lurzorua kontsolidatzeko pausoak ematen hasi da udala; Hiri Antolamenduko Plan Bereziak agiriak udal bulegoetan jarriko dituzte ikusgai

Irati Saizar Artola Belauntza

Belauntzako Udalak Gure Txokoa Hiri Antolamenduko Plan Bereziari hasierako onespina eman dio azken osoko bilkuran, baita dagokion ingurumen azterlan estrategikoari ere. Horrela, 45 eguneko epean jendaurrean jarriko dute Belauntzako udaltxeko bulegoetan, alegazio, iradokizun eta erreklamazioak aurkeztu nahi dituenarentzat.

2015ean onartu zuen Hiri Antolamendurako Plan Orokorra Belauntzan. Plan horretan, Gure Txokoako eremua kontsolidatu gabeko lurzoru gisa sailkatua izan zen, eta Hiri Antolamenduko Plan Berezi baten bidez hura garatzeko premia ikusi zuten, dagozkion hirigintza ezaugarriak hobetze aldera. Hori horrela, plan berezia martxan da dagoeneko, eta lehen onarpena jasoa du.

Gure Txokoa Belauntzatik Berrobirako bidean dagoen Beotibar auzoan dago kokatuta, Zelai



Plan Bereziak barne hartzen duen eremua. ATARIA

errekaren bi ertzetan, eta 5,38 hektarea ditu.

Plan bereziaren arabera, eremuaren antolamendu berriak gaur egun dauden lurzati industrialak kontsolidatzea ekarriko du. Era berean, antolamendutik kanpo jotzen direnak eraitea da asmoa, ibaiaren jokabide hidraulikoa hobetzeko asmoz.

Horrez gain, eremuaren hegoaldean eta errekatik urrun proposatzen diren lurzati berrietan, eraikigarritasuna 4.667 metro karratu handitzeko aukera mahai gainean jarri dute.

Bestalde, txostenaren arabera, industrialdeak dituen hiru sarbideak bere horretan mantenduko dira, eta gaur egungo bide-sarea ere bere horretan utziko dute, lurzati baterako sarbide berri bat gehituz. Bide horietan espalo bat egitea aurreikusi dute.

Industrialdearen mendebaldean espazio libre bat aurreikusi dute, 9.834 metro karratukoa. Espazio horrek, Belauntza aldean dauden bi etxebizitzekin muga egingo luke. Eta aparkaleku berriak ere jarriko dituzte orain daudenak mantenduz.

Pirinioetara irteera antolatu du Berrobiko Ibin Kirol Klubak

BERROBI // Asteburu honetarako badute plana berrobitarrek; bi egunetarako Pirinioetara joango dira. Larunbatean, 06:00etan aterako dira kotxez. Achar de Alanora igoko dira eta gaua Armaia aterpetxean pasako dute. Igandean, berriz, Pico Estribiella igotzea aurreikusi dute. Bi ibilbideak 15 kilometro ingurukoak dira. Adin txikikoak direnek arduradun batekin joan beharko dute.

Hilaren 21a izango da danborradan izena emateko azken eguna

IBARRA // Ibarako abuztuko San Bartolome jaietako helduen danborradan izena eman nahi duenak, uztailearen 21a baino lehen egin beharko du. Dannon Txokoa, Txumitxa, Atari eta Zubiaurre tabernetan apuntatu daiteke. Entseguak abuztuaren 19an eta 20an 20:15ean izango dira plazan, eta abuztuaren 22an, 17:15ean, Azkue auzoan.

Ostiralean amaituko da Bizkaira joateko apuntatzeko epea

AMEZKETA // Uztailearen 17rako 60 urtetik gorako amezketarrentzat Bizkaira irteera antolatu du udalak. Irteera 08:30ean izango da eta hamaiketako egitera Busturialdean geratuko dira. Ondoren, Ekoetxea bisitatu ostean, Korte Zubiko Lezika jate txean bazkalduko dute. Arratsaldean, denborarik balego, Durangon egingo lukete geldialdia. Txartela ostiralerako erosi beharko da, 30 euroren truke.

Bizi Nahi elkarteak Laredora irteera antolatu du

IBARRA // Uztailearen 20rako Laredora irteera prestatu dute Ibarako Bizi Nahi elkarteak. 09:00etan abiatuko dira, eta bidean geldialdi labur bat egin ondoren, Laredon geratuko dira. Eguerdian, El Faro de Laredo jate txean bazkalduko dute, eta arratsaldean, Zumaian egingo dute geldialdia. Bazkide direnek 25 euro ordaindu beharko dituzte, eta ez direnek 30 euro.



ZUBIA MARRAZTU DUTE

Tolosa eta Ibarra arteko zubiaren hanka batean marrazki bat egin dute. Beantatuz egitasmoaren barruan sortu dute artelana. Aurten Marat Danilyan kale artista, diseinatzaile eta ilustradore errusiarra izan da Tolosan, eta hark egin du. I. SAIZAR



Iaz Vilafranca del Penedes herrikoek giza dorrea egin zuten txupinazoan. A. IMAZ

Txintxarriak prest dira asteartera bitartean jai giroan murgiltzeko

Alegian, jai egun handia da uztailearen 16a, Karmen eguna; Aurten asteartearekin egokitu denez festak ordura arte luzatuko dira; gaur bertan Bibalabirjen jaiak hasiko dira

Jon Miranda

Bost egun iraungo dute Alegiako Karmen jaiak, etzi hasi eta asteartean, hain justu, Karmen egunean bukatuz. Bibalabirjen jaiak ere bost eguneko iraupena izango dute, baina gaur hasi eta igandera bitartean luzatuko dira ekitaldiak.

Ostiralean, 19:00etan botako dute jaiak hasiera emateko suzi-

ria eta orduan igoko dute txintxarria udaletxera. Aurten, udal talde berriak botako du txapli-gua eta txupinazoaren aurreko unean, Villabonako Besamotza konpartsako erraldoi eta buruhandiak ibiliko dira kalez-kale.

Kirol hitzordu ugari izango dira jaietan eta igandean, uztaileak 14, hitzordu garrantzitsua izango da Larraitz auzoko pla-

zan. Harri-jasotzaileen XIII. Txintxarri Saria izango da, harri txikien Euskadiko txapelketa. Gipuzkoarrak izango dira parte hartzaile gehienak: Imanol Albizu Arrillaga *Goikoetxea*, Iñigo Ezzagirre Askarai, Hodei Iruretagoiena Uria *Izeta IV*, Mikel Lopetegi Gereka Urria, Xabat Olaizola Aristi eta Aimar Irigoien Jauregi; eta bakarra, berriz, bizkaitarra: Inhar Urruzuno Pagoaga.

ALEGIKO FESTAK 2019

Uztailak 12, ostirala

17:00. Haurren Santos Torneoaren futbitoko finala eskolako patioan.

18:30. Kartel lehiaketan parte hartu duten marrazkien erakusketa udaletxeko arkupetan.

18:30. Villabonako Besamotza erraldoi eta buruhandi konpartsa, Loatzo musika eskolako musikariek eta Giroarte dultzaina taldearen kalejira Larraitz auzotik plazaraino.

19:00. Kontzentrazioa plazan *Euskal preso eta iheslariak etxeralelopean*.

19:00. Txupinazoa udal talde berriaren eskutik. Jarraian, txintxarriaren jaisiera, jaiak hasiera iragartzeko.

21:00. Zahagiardoa zubian.

22:30. Bertsolariak Elizpe zineman. Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Eli Pagola, Maddalen Arzallus eta Imanol Irizustabarrena. Gai-jartzailea: Imanol Artola *Felix*.

00:00. Niña Coyote eta Chico Tornado eta Ze Esatek! taldeen kontzertuak.

Uztailak 13, larunbata

09:00. Giroarte dultzaina taldeak alaituriko diana.

12:00. Sagardo dastatzea sardina eta txorizo erreekin. Sagardotegiak: Eguzkitza, Sarasola, Isastegi, Zalvide eta Aulia. Irma Karrera eta Jokin Tolosa trikitilariak alaiturik.

15:00. Alegiako IV. Goitibehera Jaisiera Napar-Etxeberritik behera.

18:00. Pilota: Alegiako IX. Pilota txapelketako finalak. Neskak palaz eta mutilak eskuz binaka. Profesionalak: Artola - Urretabizkaia vs Bengoetxea-Aranguren.

21:00. Zahagiardoa Larraitz auzoan.

23:00. Deabru Beltzak taldearen *Les tambour de feu* emanaldia kaleetan zehar.

00:00. DJ Josu Rodriguez.

Uztailak 14, igandea

09:00. Kalejira berezia, herriko txistulari ohiekin.

11:00-14:00. Haur parkea eskolako patioan.

12:15. Leiho eta balkoi ederrenaren lehiaketaren sari banaketa.

12:30. Aire Ahizpak taldearen emanaldia.

16:00. Haur parkea eskolako patioan.

18:00. Apar festa.

18:30. Herri kirolak Larraitz auzoko plazan: Harrijasotzaileen XIII. Txintxarri Saria jokatu dute. Harri txikien Euskadiko harrijasotze txapelketa.

Partehartzaileak: Inhar Urruzuno Pagoaga, Imanol Albizu Arrillaga *Goikoetxea*, Iñigo Ezzagirre Ascaray, Hodei Iruretagoiena Uria *Izeta IV*, Mikel Lopetegi Gereka Urria, Xabat Olaizola Aristi, Aimar Irigoien Jauregi.

19:30. Tio Teronen Semeak taldeak *Festamentua* emanaldia eskainiko du.

21:00. Zahagiardoa egingo dute plazan.

23:00. Fan&Go taldearekin erromeria.

Uztailak 15, astelehena

09:00. Giro arte taldeak alaituriko diana.

09:00. Erretiratuek antolatutako mendi ibilaldia.

11:00. Erretiratuentzat hamaiketako.

14:00. Umeen bazkari herrikoia plazan.

15:00. Haurrentzako play-back saioa.

Ondoren, zumba saioa.

16:30. *Gora kasete* haur antzerkia plazan.

18:00. Umeentzako txokolata plazan.

19:00. Herriarren arteko toka txapelketa plazan 12 eta 15 urte bitartekoentzat eta ondoren 16 urtetik gorakoentzat.

21:00. Zahagiardoa plazan.

23:00. Sara Zozaya eta Nerabe taldeen kontzertuak egingo dituzte plazan.

Uztailak 16, asteartea

Karmengo Amaren Eguna

09:00. Patxaranga txarangarekin diana.

09:00. 3X3 saskibaloi txapelketa eskolako patioan. Kadete, infantil eta alebin mailak.

12:30. Sutarri dantza taldearen emanaldia plazan.

Ondoren, Patxaranga txaranga kaleetan zehar.

18:00. Umeentzat jokoak herriko gazteen eskutik, eskolako patioan.

19:30. Harresi taldearekin erromeria.

21:00. Zahagiardoa plazan.

23:00. Harresi taldearekin erromeria.

00:00. Txintxarria erre eta jaiak agurtuko dira.

Ikasi kazetaritza lanbidea urtebetez BERRIAN!

BERRIAK KAZETARITZAn trebatzeko
bost lanpostu eskaintzen ditu
2019-2020ko ikasturterako.

Eskaintzen da:

- ▶ Praktiketako lan kontratuak.
- ▶ 2019ko irailetik 2020ko ekainera bitarteko iraupena.
- ▶ BERRIAK Andoain duen egoitza nagusian, edo Bilboko, Gasteizko, Iruñeko edo Baionako ordezkaritzetan.

Bete beharreko baldintzak:

- ▶ Kazetaritza arloan lan egitea ahalbidetzen duen unibertsitate titulua izatea.
- ▶ Euskara maila handia.

Kontuan hartuko da:

- ▶ Kazetaritza arloan praktikak egin izana.
- ▶ QuarkXpress programa erabiltzen jakitea.

Deialdira aurkezteko epea 2019/07/14 artekoa izango da.

Interesa duenak bidal dezala curriculuma gizabaliabideak@berriataldea.eus helbide elektronikora, 'KAPR_2019' erreferentzia zehaztuz.

BOST EGUN, GAUR HASITA

Gaur abiatuko dituzte Bibalabir-jen jaiak Alegian eta lehen eguna goizaldera arte luzatzeko asmoa dute. Iaz egin zuten bezala, 06:00etan gaupasa egin dutenekin argazkia ateratzeko hitzordua egin dute antolatzaileek.

Iaz abiatutako bideari jarraituz aurten ere, ostirala, mozorroren eguna izango da. Boulebardean bazkarian bilduko dira parte hartzaileak eta kuadrillen arteko jokoak egingo dituzte bazkalosteantean. Ostirala borobiltzeko, reggae gaua antolatu dute: Ziribulo Sound, Stepi Selettah eta Bass Again Soinu Sistemak taldeekin.

Musikak presentzia nabarmena izango du Bibalabirjen festetan. Gaur Soinuz Blai taldearekin erromeria izango da eta bihar Unidad Alavesa taldea izango da. Larunbatean, Herenegun, Basati eta Desegin taldeen kontzertuak izango dira, eta igandean, egitarauarekin amaitzeko, Taupada taldearen akustikoa izango da.

BIBALABIRJEN FESTAK

Uztailak 10, gaur

17:30. Santos Torneoko finalak.
19:00. Sagardo dastatzea trikitilari-ekin.
19:30. Preso eta iheslarien aldeko argazkia.
21:00. Zahagiardoa.
00:00. Erromeria Soinuz blai taldearekin. Atsedendaldian sila jokoa.
06:00. Gaupargazkie.

Uztailak 11, osteguna

18:30. Antzerkia: Txiki-ren baka-rrizketa, 40 urte eta aldapan behera niek.
21:00. Zahagiardoa.
22:30. Kontzertua: Unidad Alavesa.

Uztailak 12, ostirala

Mozorro eguna
12:00. Frontenis txapelketa.
14:30. Bazkaria.
Ondoren, kuadrillen arteko jolasak Bulebarren.
21:00. Zahagiardoa.
22:30. Reggae gaua: Ziribulo Sound, Stepi Selettah, Bass Again Soinu Sistema.
06:00. Elektrotxaranga: Elektropo.

Uztailak 13, larunbata

21:00. Zahagiardoa.
23:00. Kontzertuak: Herenegun, Basati, Desegin.

Uztailak 14, igandea

18:30. Akustikoa: Taupada.
21:00. Zahagiardoa.
22:30. Herriko bertsolariak eta bokatak txosnan, Alegiako Basket Taldearen eskutik.

Aurten ere, 'Ez ezetz da!' kanpaina jarriko dute martxan

Gaur, etzi eta larunbat gauean etxera taldean joateko hitzorduak egingo dituzte Orendaingo bidegurutzean; besoko morea eramango dute zenbait herritarrek

Erredakzioa

Alegiako Udalaren, emakumeen taldearen eta beste hainbat eragileren elkarlanari esker, sexu erasoaren aurkako protokoloa martxan izango da Alegiako jailetan. Udalaren egitaraua eta Bibalabirjen jaiena kontuan hartuta, uztailearen 10etik 16ra izango dira jaiak eta egun horietan guztietan martxan izango da *Ez ezetz da!* kanpaina.

Iaz bezala, erasoak salatzen telefono zenbaki bat martxan izango da 24 orduz. 606 797 135 da zenbaki hori eta erasoaren bat jasaten edo ikusten duen edonork deitu dezake bertara; behar badu laguntza eskainiko zaio.

Horrekin batera, hiru gauean etxera taldean joateko hitzorduak ezarriko dira. Orendaingo bidegurutzera izango da elkargunea eta talde bakoitzean ardura-dunak egongo dira. Hauek dira ordutegiak: gaur gauean 02:00etan; eta ostiral eta larun-



Kanpainaren aurkezpenean parte hartu duten herritarrek eman dute protokoloaren berri. ATARIA

bat gauean, 03:00etan eta 05:00etan.

Gainerako jai egunetan, etxera laguntzea nahiko luketenean, lau pertsonako gutxieneko talde bat osatuko balute etxera lagunduko zaie. Horretarako, 606 797 135 telefono zenbakira deitu ahal izan-

go da eta jakinarazi dutenez, gehienez ordubeteant, etxera lagunduko zaie horrela eskatzen dutenei.

BESOKO MOREAK

Ez ezetz da! kanpainak aurtengorako duen berrikuntzetako bat

besokoekin ibiliko diren ardura-dunena da. Protokoloko ardura-dun horiek kolore moreko besokoekin ibiliko dira kalean. Inork laguntza beharko balu, besokoak dituztenengana jo dezake eta laguntza bideratuko zaila jakinarazi dute.



Alegiako Boulebardean antolatzen dute festa gunea Bibalabirjenekoek. I.G.L.

'Tolosaldeko Ataria'-ko kolaboratzailea izan nahi?

'Tolosaldeko Ataria'-k komunikazio proiektuan parte hartzeko aukera eman nahi dizu. Ikasturte berriarekin kolaboratzaile, iritzi emaile, irrati saio gidari edota komikigile izan nahi baduzu, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edota deitu **943 65 56 95** telefono zenbakira.

Gustuko duzun hori egiteko aukera zabaldu nahi dizugu, ez galdu aukera!



Josu Artola, «oso gustura» Gordexola Xtreme probarekin

Moto gidari
amezketarrak
bosgarren postua egin
du enduro extreme
kiroleko lasterketan

Imanol Garcia Landa

Amezketara

Josu Artolak bosgarren egin du Gordexola Xtreme proban, enduro extreme kirolean egiten den lasterketa garrantzitsuena Euskal Herrian. Moto gidari amezketarra «oso gustura» geratu da lortutako postuarekin. Aurreneko aldiz 2012an parte hartu zuen Artolak, eta ordudanik urtero ari da parte hartzen Gordexola Xtreme lasterketan.

Igandean jokatu zen final handia, baina horretara iristeko beste proba batzuk pasa behar ziren. Ostiral gauean jokatu zen erlojuaren kontrako proba, ibilbide motz batean. Horri itzuli bat eman behar zitzaion eta hor lor-

tutako sailkapenak balio zuen gero, larunbatean, egindako probako irteera zehazteko. Hamaugarren egin zuen Artolak: «Nahiko gustura gelditu nintzen. Gehienbat garrantzitsua izaten da oso atzean ez geratzea, bestela gero hurrengo eguneko proban jendeak oztopatu egiten du eta zaila izaten da aurreratzera. Gainera lurra oso lehor zegoen, hauts asko zegoen, eta ikusteko arazoak ere bai».

Larunbateko proban minutu eta erdiko aldearekin atera ziren moto gidariak, eta lasterketa sei ordu ingurukoa izan zen. Ibilbide bati hiru itzuli eman behar zitzaizkion. Proba horretako lehen 50 sailkatuek igandeko finalean parte hartzen dute. «Hasi eta berehala zazpigarren postuan jartzea lortu nuen. Gero arazoak izan nituen aurreko balaztarekin, eta balazta hori gabe geratu nintzen», esan du Artolak. «Aurreneko itzulia bukatuta, paddock-ean balaztaren arazoa kon-



Josu Artola, aurtengo Gordexola Xtreme proban. ATARIA

pontzea lortu genuen. Tarte horretan parte hartzaile batzuk pasa egin zidaten, baina berriz ere zazpigarren postura iristea lortu nuen, eta postu horretan bukatu nuen».

Igandeko final handian, beraz, zazpigarren atera zen amezketarra. Orduan ere 30 segundoko

tartearekin atera ziren parte hartzaileak. «Komeni izaten da ahal den aurren ateratzea. Igandeko ibilbidea zaila izaten da eta zenbait puntutan ilarak sortu daitezke, hau da, beste gidari batzuk traban jarri daitezke», esan du Artolak. Bere helburua proba bukatzea zen, izan ere, lehen

sailkatuak proba bukatu ondoren, ordubetera lasterketa amaitutzat ematen da eta ez dena helmugara iristen, lasterketatik kanpo geratzen da. Zazpi bakarrik bukatu zuten, eta horietako bat izan zen Artola: «Proba oso gogorra izaten da, eta maila handiko gidariak zeuden, aurreneko hirurak behintzat». Artola irabazlea izan zen Mario Romanetik ia 32 minutura iritsi zen, guztira helmugan 4.32.08ko denbora eginez.

Iaz podiumean sartzea lortu zuen, hirugarren egin ondoren, «banekien podiumean sartzea oso zaila izango zela», esan du Artolak. «Gainera aurreko bi astetan besoetako minekin eta arazoekin izan naiz, eta ikara handiarekin joan nintzen, nola aterako ote zen pentsatzen. Azkenean uste baino hobeto aritu naiz». Amezketatik hainbat herritar joan ziren Artola ikustera, eta asko eskertu die haiek emandako animoak.

Aurrera begira Errumanian egiten den Red Bull Romaniacs proban parte hartuko du Artolak: «Oso lasterketa garrantzitsuena da. Aurreneko aldia iaz joan ginen, eta oso gustura ibili ginen bertan, eta aurreneko erreplikatzeko asmoa dugu».

Bigarren postua lortu du Tolosaldea IKTk Gipuzkoan

Infantil, junior eta absolutu mailetan jokatu dira igeriketa txapelketak

I. Garcia Landa

Tolosaldea IKT igeriketa taldeko infantil, junior eta absolutu mailako igerilariak parte hartu dute asteburuan Irunen jokatu den Gipuzkoako Txapelketan. 28 igerilari joan ziren, eta guztira 90 domina lortu dituzte. Emakumezkoetan hirugarren postua lortu zuten, eta gizonezkoek bigarren postua; sailkapen orokorrean bigarren postua lortu zuen Tolosaldea IKT taldeak.

Zuriñe Del Pozo taldeko kideak azaldu duenez, «infantil gehienek azken txapelketa zuten denboraldi honetan, eta gogotsu joan ziren eta gehienek beraien markak hobetu zituzten. Junior eta absolutuetan Espainiako gutxieneko zenbait marka lortu di-



Asteburuan Gipuzkoakoan izan ziren Tolosaldea IKT taldeko igerilariak. ATARIA

tuzte. Junior eta absolutuek denbora gehiago daramate igerian, eta, beraz, beraientzat markak jaitea gero eta zailagoa izan ohi da». Bestalde, taldetik nabarmendu dute absolutu mailako mutilen 4x100 metro estilotan bigarren postua lortu zutela.

Hemendik aurrera, Espainiako Txapelketak izango dituzte Tolosaldea IKTko igerilariak. Alebinetan gutxieneko markak lortu dituztenak Unai Zubeldia, Markel Garmendia, Oinatz Az-

koitia, Joanes Ruiz eta Nahia Crisobalena izan dira. Infantiletan, Leire Maritxalar eta Gorka Duran joango dira. Junior eta absolutu mailetan Eneko Garmendia, Eneko Barriola, Maddi Barriola eta Irati Arzalluz joango dira. Datei dagokionez, alebinak uztaillaren 20 eta 21eko asteburuan doaz Tarragonara; infantilak Bartzelonara uztaillaren 27 eta 28ko asteburuan; eta junior eta absolutuak abuztuaren 3 eta 4ko asteburuan Terrasara.

Erkki Zeberio, Espainiako txapelkun luzera jauzian

Erredakzioa Tolosa

Espainiako 20 urtez azpikoen atletismo txapelketan eskualdeko bi atletek urrezko domina lortu dute. Tolosa CFko Ander Uranga anoetarrak 200 metro-tan eta Erkki Zeberio tolosarrak luzera jauzian.

Erkki Zeberio Atletico San Sebastian taldeko kidea da. Pasa den asteburuan Granollersen jokatu diren Espainiako txapelketetan, bi domina lortu zituen. Urrezkoa luzera jauzian izan zen, eta bestea, zilarrezkoa, Ander Urangarekin batera, 4x100 metro erreleboetan.

Luzera jauziko garaipena izugarria izan dela azaldu dute Atletico San Sebastian taldetik: «Azken aukera geratzen zitzaion eta



Erkki Zeberio, eskuinean, Atletico San Sebastianeko taldekide batekin, urrezko domina soinean duela. ATARIA

seigarren postuan zegoen. Jauzia izugarria izan zen, 7,28 metro eginez eta txapelkun».

«Etorkizun gehien duen klubetako bat da Tolosa Eskubaloia»

ALEX NOGUES
ESKUBALOI ENTRENATZAILEA

Ibilbide berri bati ekingo dio azken bost urteetan Tolosa Eskubaloiairen talde nagusiko entrenatzaile izan den Alex Noguesek.

Imanol Garcia Landa Tolosa

Tolosa Eskubaloiko entrenatzaile bost urtez izan eta gero, Errenterian bizi den Alex Nogues (Donostia, 1969) Bera Bera taldeko bigarren entrenatzailea izango da. Tolosako taldearekin lotura izaten jarraituko duela esan du, Jon Iraola entrenatzaile berriari laguntzeko.

Nola hartu duzu talde zaldatzeko erabakia?

Ekainean zehar Bera Bera taldeetik bigarren entrenatzaile izatea eskaini zidaten. Ligako eta kopako tituluak irabazteko, eta Europako jokatu ahal izateko aukerak hor daude, emakumezkoen ligako puntako taldea baita, eta buuruari bueltak eman ondoren, ikusi nuen aukera ona zela.

Zaila izan da Tolosa Eskubaloia uztea?

Erabakia konplikatu zen. Azken urte hauetan oso ondo txertatu naiz klubean. Nik uste dut lan on bat egin dugula, gainera helburu onak lortu ditugu. Bera Bera taldera joatea erabaki ondoren, formula bat bilatzen ari gara

kolaboratzen jarraitzeko, azken urte hauetan eraiki dugun guztia bide berdinean jarraitu dezan. Ikusiko dugu hasieran lagunduko dudan edo denboraldian zehar ere ariko naizen kolaboratzen.

Jon Iraola izango da entrenatzaile berria. Zer iruditzen zaizu kargurako?

Lehendakariarekin hitz egin nuenean, esan nion kluba e-dukтура aldetik urte hauetan asko hazi dela bai jokalariek aldetik eta baita entrenatzaile aldetik ere. Jendea rol gehiago eta eskarmentu gehiago hartzen joan da, eta lehen aukera zen klubean bertan begiratzea. Jon, esaterako, jubenilen taldeko entrenatzaile bezala Euskadiko txapel-dunorde izan da eta Espainiako Txapelketara joan da. Jokalari ohia da, eta taldeko jokalariek guztiak ezagutzen ditu, kluba ezagutzen du, eta nire ustez ondo aterako da bai ala bai.

Espero zenuen lortu duzuen lortzea bost urte hauetan?

Nik badakit nola entrenatzen dudan, eta zer eman dezakedan,



JOSU ARTUTXA

baina gero kontrolatzen ez dituzun faktore asko daude. Orain bost urte esan bazidaten igoera bat, bi liga, bi igoera fase eta bi hirugarren postu lortuko genituela, ezinezkoa zela esango nuen. Baina azkenean hori izan da lortu duguna. Jende asko izan da atzetik, jokalariek asko, zuzendaritzaren lan asko, eta horrek ekarri du oinarriari begiratuta Tolosan etorkizun oso ona dugula ikusteak, eta hori sustraituta geratu dela.

Une on eta txarrak izango ziren.

Dena ondo badoa, normalean ez daude arazoak edo horiek txikiak izaten dira. Erronka handiena da arazo bat sortzen denean, nola egin aurre horri eta nola joan aurrera. Onena izan da une txarrak kudeatzen eta salbatzen jakin izana, eta horiek dira gero indartsuago egiten zaituztenak, bai klubaren barruan eta baita kanpora begira ere. Momentu onena bigarren urtean ligako txapel-dun izatea, etxean igoera fasea jokatzea eta igoera lortzea izan zen. Eta txarrena bigarren

mailan egindako urtea izan zela esan daiteke; lehiatu genuen eta partida asko gol batengatik galdu genituen, eta azkenean jaitsi egiten zara eta zapora garratza geratzen zaizu, ikusita gutxi falta izan zela maila mantentzeko.

Zer meritu izan zuen bigarren mailara igotzeak?

Gipuzkoan talde gehienak amateurak dira. Esterako, aurtengo igoera faserara joan garenean, bertan izan gara Asobalen jokatu izan duten jokalariekin eta egun 35 urte inguru dituztenak. Gure jokalariek beterean 28-30 urte zituzten. Zein da ezberdintasuna? Beste taldeetako jokalariek horiek jasotzen duten dirua jokatzeke. Tolosako taldearen bezalako kasuan, gertatu daiteke jokalariek urte horiekin seme-alabak izaten hasten direla, eta uzten joan daitezkeela. Azken finean, aurrekontuaren aldetik dagoen ezberdintasun da; horrek ere eragiten du ezin duzula fitxatu beste taldeek bezala. Azkenean, Tolosaldean behar da azpiegitura ekonomiko gehiago izatea, babes gehiago, oinarria

hobeto kudeatu eta jokalariek dirua ordaindu ahal izateko.

Azken urte honetan liga irabaztea lortu duzue. Hori ere baloratu behar da, ezta?

Nik jokalariek esaten nien egoerak erakusten duenaren baino helburu konplexuagoak jarri behar direla, bestela segituan gelditzen zarela. Beraz, aurtengo denboraldian eskatu nien jokalariek askoz zabalago pentsatu behar genuela, liga irabaztera joan behar genuela... Eta azkenean hori gertatu zen: jendeak gora begiratzen du, eta gutxiagotik gehiagora joaten zara, eta denboraldia bukatu genuen ligako txapel-dunak izaten Anaitasunari bere etxean irabazita: ezin da gehiago eskatu.

Nola ikusten duzu Tolosa Eskubaloiairen etorkizuna?

Nik uste dut Gipuzkoan, eta EAEn ere, etorkizun gehien duen klubetako bat dela. Ez bakarrik mutiletan, nesketan ere pausoak ematen ari dira, eta denboraldi honetarako ez, baina hurrengorako ziur aski emakumezkoen senior taldea atera ahalko da. Orokorrean jokalariek maila ona da. Ni banoa, baina etxeko entrenatzaile bat izango da. Jokalari batzuk utzi egin dute, baina ez duzu kanpora joan beharrik, etxean bertan badaudelako horiek ordezkatzeke.

Datorren denboraldian ze helburu izan beharko luke talde nagusiak?

Nik uste dut jokalariek eta teknikoek gora begiratu beharko lukekela. Igoera faserako izaten diren bi postuetako baten bila joan beharko lukete. Gazte jendea sartuko da, kalitatekoa, eta horiek lehenbailehen prestatu behar dira lehiatzeko eta helburu handiak izateko. Hortik aurrera, beste lehiakide guztiak nola dauden ere ikusi egin behar da. Baina, begiratu, taldeak gora begiratu behar du.

Hilberriak eta urteurrenak

ATARIA jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Asteleheneetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



ASTEAZKENA, 2019KO UZTAILAK 10
Argitaratzailea:
 Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
 villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
 anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
 alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: 943 30 43 46



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
 Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidana-Goiatz, Ekuain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orea, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Tolosaldeko turismo enpresak saritu dituzte

Eusko Jaurlaritzak Turismo Lehiakortasun ziurtagiriak banatu ditu; Alkizako Lete nekazalturismoak Europako Etiketa Ekologikoa (Ekolabel) eskuratu du

Erredakzioa

Eusko Jaurlaritzak Turismo Lehiakortasun ziurtagiriak banatu zituen atzo, Donostiako Kursaallean, eta Tolosaldeko 12 enpresak 14 ziurtagiri jaso dituzte.

Urteak dira Eusko Jaurlaritzaren, Basquetour (Euskal Turismo Agentzia) eta Tolosaldea Garatzeneko turismo sailaren elkarlanari esker turismo sektorearen lehiakortasuna hobetzeko programak ari direla eskaintzen eta horiek guztiak saritzeko unea izan zen atzokoa.



Saria jaso duten enpresetako arduradunak, atzo. ATARIA

TURISMO JASANGARRIA

SICTED kalitateko programarekin hasi zen lanketa, urte batzuk geroago teknologia berrien erabilerrari lotutako beste programa bat gehitu zioten eta azken urte hauetan, turismo jasangarriago bat lortzeko bidean, efizientzia energetikoa hobetzeko diagnostikoak egiten ari dira eta Ekolabelarekin ari dira lanean. «Horrela negozio bakoitzak bere bezero edo beharren arabera, hoberen egokitzen zaion programa aukeratu dezake», esan dute Tolosaldea Garatzenetik.

Bide horretan Alkizako Lete nekazalturismoa saritu izana na-

barmendu du Tolosaldeko agentziak. Letek Tolosaldea Ekolabel ziurtagiria lortu du eta hori lortzen duen lehen zerbitzu turistikoa izan da.

Efizientzia energetikoaren neurketan Euskadiko efizienteen artean kokatu dute Alkizako Lete nekazalturismoa.

TOLOSALDEKO SARIAK

Tolosaldeari dagokionez Lete nekazalturismoaz gain Zizurkilgo Abeletxe, Berastegiko Baztarrerxe nekazalturismoa, Tolosa-

ko Illargi taberna, Berrobiko Teileri landetxea eta Asteasuko Ugarte nekazalturismoa SICTED programarengatik saritu dituzte. Eta Abaltzisketako Bizi Biziki, Berrobiko Iriarte jatetxea, Tolosako Korteta nekazalturismoa, Tolosaldea Tour agentzia, eta Tolosako Topic zentroa IKT erabilpen egokiagatik nabarmendu dira.

Tolosako Nicolas erretegiari ere SICTED programa aitortu diote, eta baita efizientzia energetikoa saritu ere.

ASTEAZKENA 10

AGENDA

Deialdiak

Tolosa. Auzolana Ezpalan 10:00etan; bazkaria 14:00etan, eta 16:00etan auzolana berriz ere.
Alegia. Bibalabir gen festa alternatiboak: 17:30ean Santos Torneoko finalak; 19:00etan sagardo dastatzea trikitilariekin; 19:30ean preso eta iheslarien aldeko argazkia; 21:00etan zahagiardoa; 00:00etan erromeria Soinuz Blai taldearekin eta atsedendian aulki jokoa; eta 06:00etan gaupargazkie.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro bikaina. Goizean goizeko hodei hondarrak desaginda, egun osoan giro eguzkitsua nagusituko da eta gainera giro oso sanoa izango dugu. Haizeak ipar ukitua izaten jarraituko du, baina hala ere tenperaturek koska polita egingo dute gora, eguneko erdiko orduetan 23-25 gradu atseginetan joaz goia.
Bihar. Giro eguzkitsua jarraituko du. Iparhaizea ibiliko den arren, tenperatura maximoak gora egingo du eta eguneko erdiko orduetan 26-28 graduan joko du goia, Tolosaldeko txokorik beroenetan 30 gradura gerturatuko direlarik. Zeruian aitzakiarik ez. Egun osoan giro urdina nagusituko da, nahiz eta, goizaldean behe-laino puntu bat izango den.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldeko
16:30. Ur eta lur.
17:30. Gaurkoan Tolosaldeko.
21:30. Gaurkoan Tolosaldeko.
22:00. Lotsagabe (Ana Sarobe).
22:30. Galdegazte.
23:30. Gaurkoan Tolosaldeko.

ATARIA IRRATIA

09:00-11:00. Pasahitza. Eskualdeko berriak, Iker Ibarluzearekin eguraldia...
11:00-12:00. Eutsi goiari. Kirolari buruzko saioa.
12:00-13:00. Entzuteko jaiok.
16:00-18:00. Zebrabidea.
18:00-20:00. Goizeko onena.
20:00. (H)ari naizela.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa.

Jesus Mari Etxebeste Eloseg. Gernikako Arbola lorategiak, 3. Telefono zenbakia: 943 65 10 40.
Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Amarotz auzoa, 9. Telefono zenbakia: 943 67 5118.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ZORION AGURRAK

Urtebetzeak,
urrezko ezteiak,
ezkontzak,
jaioberriak...

Prezioa

14€
28€
40€
46€

Atarikideak

10,50€
21€
30€
34,50€

943 65 56 95
ataria@ataria.eus
San Esteban 20
Tolosa

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez